

Annasate

P R E S S

1988ko
ekainak 28
413. zenb.



Bukatu da, akabo


Kabía

ALTZARIAK

Irailera arte zapatu
arratsaldeetan itxita

%50

Prezioak
oporretara bidali
ditugu



%30

Eskaintza
bereziak

Nork itzali du garra?

noren ajea gaizkiagotze-ko asmo barik, San Joan-etan parte hartu ala ez egon den eztabaidaren hariari tiraka jarraituko dut. Maritxu Kajoin eta Santamasetan ez bezala, herriko jai nagusien antolazalea udala izan da beti. Seguruasko horrexegatik bilakatu dira errepikapen eta ikuskizun huts. Hala eta guztiz ere, orain dela lau urte, aire bolada freskagari batek astindu zuen San Joanen hotsanditasuna eta euskal kultura, usadio eta kondairak uztartuz, ekintza berriak plazaratu ziren: Errementari Dantza, Eguzki Laru, Dragoi Jana edo goitibehera saria, kasu. Jaien prestaketak udalaren ardurapean segitzen zuten baina polito-polito gazte koadrilak ere



Itxaro Artola

antolaketara hurbiltzen hasi ziren eta aspaldiko San Joanetan izan zuten zeresana berreskuratzeari ekin zioten. San Joanen berpizkundea zirudien, jai partehartzaile eta herriko batzuen etorrera. Zer gertatu da hortaz aurten? Zergatik ez da piztu herriaren garra? Hedapen nazionalako egunkari bati eskainitako elkarrizketan izako koadrilen batzordeko partaide batek udalari egotzen zion errua. Udalak ez dituela kontuan hartu, interes eskasa erakutsi duela, jai arduradunen deialdia iritsi zitzaierako zerbait egiteko berandu zela esaten zuen. Arrazoi epelegiak direla uste dut. Egia da agintean dagoenetik, hirutarikoak ez duela erakutsi herriarekin batera lan egin eta komunikatzeko

Zergatik ez da piztu herriaren garra?

gaitasunik eta oraingoan ere bere harriko jauregitik irten barik saiatu dela jaiak antolatzen. Halere, zalantzan jartzen dut parte hartzeari uko egin diotenen erabakia zuhurrera izan denik. Udala inertziagatik edo haizea bere alde ez zuela bazekielako, aurreko urteetan arrakastaz urratutako bidetik joaten saiatu da eta antolaketan parte hartzeko deialdia zabaldu du. Hortaz, egitarautik kanpo geratu diren gazte ekintza horiek udalak bere kabuz heke eutsiko ziela aurreikusten bazen, orain arte lortutakoa errotzeko benetako gogoia bazegoen, ez ote zen hobe deiaz baliatu eta udalari motzean heltzea? Azken batean, saiakerak emaitzarik emango ez balu, beti legoke atzera egiteko aukera. Kritikak ere legezkoak izango lirateke orduan eta ez, izan diren bezala, merke sasiegi. Argi geratu da udal gobernuaren eraketak eta lanarekiko ezadostasunak eragina izan dutela eta jaiak iritsi direnean hor konpon marianton esan diotela askok udalari. Esanak esan, ondo pasau geratzen diren jai orduak, bakoitza bere bidetik bada ere.

ARKO
ARRASATE
KOMUNIKABIDEAK

ARRASATE PRESS
Argitaratzailea: ARKO (Arrasate Komunikabideak) Oñatorra kalea, 31
20.500 ARRASATE (Gipuzkoa)
Tel.: 77 05 65. Faxa: 77 09 40
E-mail: arrasatepress@readyssoft.es

Laguntzailea: Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Joxe Aranzabal. **Kazetariak:** Marijo Deogracias, Marian Porcel, Naiara Gorroñu. **Publizitatea:** Kaitlin Allende, Nerea Zallo, Arantza Lagunilla. (Tel.: 77 08 15). **Administrazioa:** Agurtzane Gainzarain (Tel.: 79 02 26). **Disenua:** Txos Azumendi. **Asteburuetako berriemakaldea:** Lierni Uribarren. **Kolaboratzaileak:** Ander Etxeberria, Marta del Campo, Iban del Campo, Itxaro Artola, Bixente Azkarate, Joxerra Aguirretza, Juan Luis Azkarate, Aitor Orobenaga, Mikael Inzar, Udaleko Gazteria Saila, ASA Taldea, Eneko Allende, Besaide M. E., Karmelo Uribarren, Bixente Pagoaga, Amaia Jauregi-Arriburu, Juan Bautista Agoria, Jose Mari Astigaraga, Jesus Larrañaga, Matilde Sainz, Iker Barandiaran, Xabier Letona, Karmele Perez, Kopti, Jon Ozaeta, Jabi Luengo, Maile Barreña. **Banaketa arduraduna:** Jaxone Mendizabal-AED. (Tel.: 77 12 28). © ARRASATE PRESS.
Tirada: 6.300. **Legu-Gordailua:** 1124/88. **ISSN:** 0214-4654. Frankeo kontzertatua. **Inprimategia:** Gertu Koop, E. (Zubillaga, Oñati).

ARRASATE PRESSEK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanien eta iritzien erantzunkizunik.

ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.

Azaleko argazkia: Laso.

Arrasateko Udalerriaren laguntza
Gipuzkoako Foru Aldundiren laguntza
Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren laguntza

UGARAN
jatetxea

Garagartza auzoa
Tel: 79 76 58
ARRASATE

Sili Sili

Martxa eta estilo handiko arropa

lurriotz, 9 • ARRASATE
Tel.: 943 79 81 82

M

MEMESA
Industria hornidurak

Tel. 943 71 24 25

EROSKI BIDAIAK

Hau bezalako preziorik ez duzu ikusiko beste inon

MALLORCA

Uztailen. 8 egun. Hotel ***
Pentsio Osoa.
Hegazkina Bilbotik.
Prezioa pertsona bakoitzeko

59.900 PTA tik HASITA

3 hilabetean ordain dezakazu

1 Eusko Foru Agintea

ViAJES EROSKI BIDAIAK

Prezio Onak baino gehiago

ZURE ERRESERBA EKAINAREN 30R BAINO LEHEN EGITEGATIK Travel Clubeko 500 puntu "estra"

LARUNBATETAN arratsaldetik ere ireki egiten dugu EROSKI HIPERMERKATUETAKO bulegoetan

26

ostirala

■ ZINEA

El Astronauta Alai zine-
man, 17:00etan eta *Medidas*
Desesperadas, 19:30etan eta
22:00etan.

■ SAN JOANAK

- Bakailao lehiaketa herriko plazan, SUDC elkarteak antolatua. Goizeko 10:30etatik aurrera.
- Kale antzerkia: *La Averia*, Trapu Zaharra taldearekin, 19:30etan.
- Rock kontzertua, Monterronen, 22:00etan. *Bad F-Line*, *Dantzut* eta *Ke Rule* taldeekin.

- Dantzaldia, *Haitzama* taldearekin, 22:30etan, herriko plazan.

■ PRESOEN EGUNA

Arrasateko Senideak eta Amnistiaren Aldeko Batzordeak elkarteek *Presoen Eguna* antolatu dute. 21:30etan herri afaria egingo da, Seberon. Ondoren, Ainhoa Agirreazaldegia eta Jon Sarasua ari-tuko dira, Arrasateko trikitilariak, dantzariak, *Ines* eta *Naiara* trikitilariekin. Espe-
txeratueta eta euren familiar-
tekoiei omenaldia egingo zaie.

■ UNDROP-EN KONTZERTUA

Bergarako Jam aretoan Undrop taldearen kontzertua izango da, gaueko 23:00etan. Undrop famatuak egin dira Pepsirentzat egindako iragar-
kiaren ondorioz.

27

larunbata

■ ZINEA

Ellas, Alai Zineman, 17:00, 19:30 eta 22:00etan.

■ SAN JOAN JAIK:


- Kart lasterketa izango da 16:00etan. Biteri Etorbide-
tik Maalako Gurutzeraino.
- Xake partidak jokatu dira, 16:00etatik aurrera, herriko plazan.
- Musika. Goikobalu abes-
bata, Goikobalu Txiki, Ahots
seikotea eta pianoa, Oihus-
ka boskotea eta Arrasate
Musikaleko tronboi taldea
izango dira, 19:30etatik
aurrera, Amaia Antzokian.

■ TEKNO FESTA

Bergarako Jam aretoan sekulako tekno festa antolatu dute, arratsaldeko 16:00etan hasi eta goizaldera arte. Inter-
net, dendak, tatuajeak, dan-
tzarako pistak eta bero dute-
nentzako karpa ipiniko da kan-
poan.

■ ROCK JAIALDIA SAN PETRIETAN

• *Doctor Deseo*, *La Polla*
Records eta *Zei* taldeen kon-
tzertua, Eskoriatzako Luis
Ezeiza ikastetxean, gaueko
22:30etatik aurrera. Sarrerak
aurrez 1.500 pta. eta 1.800
lehiatilan.



IBABE GARAJEA

MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA

Gesalibar auzoa, z/g. Tel.: 943 79 99 61 • ARRASATE

TXOKO TABERNA

*Eure berezitasunak pintxo eta
mokau gozoak*



URONDO

Elektrizitatea

- * Elektragaiak
- * Instalazioak
- * Automatismoak
- * Proiektuak
- * Argiztapena
- * Bobinaketak

Musakola auzoa, 26. Kataide Industrialdea 5. Pabiloia. 214 postakutxa • ARRASATE
Tel.: 943 79 78 15 / 943 77 10 42 Faxa: 943 77 14 76

28 igandea

29 astelehena

■ **ZINEA**

Ellas, Alai Zineman, 17:00, 19:30 eta 22:00etan.

■ **SAN JOANAK:**

• Moto Txikien I. lasterketa jokatu da, 10:00etatik 14:00etara, Musakolako San Antolin inguruan. Lasterketa baliogarria izango da Euskadiko Txapelketarako.

■ **ZINEA**

Ellas, Alai Zineman, 19:00 eta 21:30etan.

■ **SAN PETRIAK ZUBILLAGAN**

Txupinazoaren ondoren, Oñatiko abesbatza arituko da meza nagusian, Zubillaga auzoan, 19:30etatik aurrera.

■ **ITURRIPE**

San Joanak direla eta, Iturripeko kiroldegiak ordutegi berezia izango du. Ekainaren 26, 27 eta 28an itxita egongo da. 29an eta 30ean 17:00etatik 21:30etara egongo da zabalik.

■ **LOGOTIPO LEHIAKETA**


Zaldibarko Udaleko Euskara batzordeak eta herriko elkarteek ume eta gazteen artean euskararen erabilera sustatzeko logotipo lehiaketa antolatu dute. "Bolo-Bolo Dabil" leloa konposaketaren barruan agertu behar da. Logotipoak udal bulegoetan aurkeztu behar dira, uztailaren 15eko 15:00ak baino lehen, Zaldiarko udaletxean.

■ **ITSASOTIK ITSASORA**

Debagune elkarteak gazteei zuzendutako bizikleta martxa antolatu du abuzturako. Mediterraneotik Kantaurirako ibilbidea euskara giroan bizi nahi duenak AED, Jardun, Loramendi edo Laixan euskara elkarteetara jo dezake.

■ **MARGO ERAKUSKETA**

Kanpoko margo lehiaketako lanak Harresi Aretoan daude ikusgai. Ordutegia: egunero 18:00etatik 20:00etara; larunbat eta jai egunetan 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:00etara.

OPEL 

Oporrak laster datozenez, prestatu zure autoa!



ZATOK TAKOLORA!

TAKOLO AUTOAK

Araba etorbidea, 3
(ESKATU pabilioia)
ARRASATE
Tel.: 943 79 05 86



EZARKI

OINETAKO KONPONKETAK

Maalako Errebala, 8 • ARRASATE

- Mota guztietako oinetakoen konponketak (kalekoak, kirolekoak, mendikoak,...)
- Kremaierak
- Errematxeak, botoi zuloak, automatikoak
- Kremak, tinteak, kordioak
- Nekearen kontrako plantilla bereziak
 - Zientifikoki aztertuak
 - Forma anatomikodunak
 - Arazo guztientzako plantillak

JAIGIRO LASAIA

Eguzki galdatan hasi ziren larunbateko ospakizunak. Poliki-poliki, San Joanak aurrera egin ahala, eguraldia lainotuz eta freskatuz joan da. Jaiekin ere esan liteke beste horrenbeste gertatu dela: bezpera gaueko eta San Joan eguneko ospakizun nagusiak pasatu eta gero, jendea desagertuz joan da. Udak, festa luzeak eta lantegietako egutegiak badute zerikusirik horrekin. Baita herriko taldeen parte hartzeak ere. Kontuak kontu, oraindik geratzen dira egun batzuk festa giroan pasatzeko. Ondo ibili!



Beste urteetan ez bezala, aurren Parques y Jardinesko langileek jaso zuten makala.

LAN ESKAINTZAK

Arrasateko Udalak aldi baterako lanpostu hauek bete nahi ditu:

- Irratiko teknikaria
- Ingurugiro eskolako irakaslea

Oinarriak: Udaletxean jaso daitezke.
Eskaera aurkezteko epea: uztailaren 6rarte, beraru barne.



ARRASATEKO UDALA

Personal Saila ■

UDARAKO IKASTAROAK (UZTAILA - ABUZTUA - IRAILA)

INGENIARITZA

- Kalkulua I eta II • Fisika I eta II • Termodinamika
- Informatika • Algebra

INFORMATIKA

- Ofimatika ikastaro konbinatuak eta monografikoak (Windows, Word, Excel, Access)
- Internet
- Ordenadore bat ikasle bakoitzarentzat

ESKOLA PARTIKULARRAK

- OHO • EII • BBB • LH • BT
- UBI

MEKANOGRAFIA

- Ordenadore bidez
- Teklatuari begiratu gabe
- Minutuko 360 pultsazio

GAZTELANIA

ATZERRITARRENTZAT

HIZKUNTZA

IKASTAROAK ATZERRIAN (King's College)

**Ikasketen egiaztagiria
edo diploma**



Garibai, 6 - B ARRASATE Tel.: 943 - 77 11 06



“Ikuskizuna alderantziz atera zait”

— Zer esan nahi du **Kondharian** hitzak?

— Miguel Angel Iriagaraikasmaturako neologismoa da. Ipuinarekin zeri-kusirik zuen hitz bat jarri nahi nuen eta Iriagaraik asmaturako **Kondharian** egokia iruditu zitzaidan.

— Nondik sortu da **ikuskizuna**?


— Oinarrian antzina-ko mitoen ipuinak bereganatu genituen. Mitoek beti izaten zituzten beren erritualak. Beraz, ipuinei erritualen dantzak lotzea erabaki genuen.

— Neketsua izan da **ikuskizuna** aurrera ateratzea?

— Diru aldetik gauza guztiek dute kosto bat. Ideiei dagokienez, ikuskizuna alderantziz atera zait. Hasieran ideiak libre utzi behar dituzu eta azkenean eurek egiten dute ordenamendua.

— Jasotako erantzunarekin pozik?

— Bai. Hainbat lekutan oso harrera ona izan du.



Juan Antonio Urbeltz
Kondharian-eko sortzailea

LARUNBATA 20

ASTEBURUA, JAIEN ATARIA

Makina bat ekitaldi izan genituen herrian San Joanen atariko. Larunbatean txikienek gogoz erakutsi zuten danborrak astintzen badakitela Haurren Danborradan. Kirol kontuetan ere gauzak ez ziren makal ibili. Musakolako Kiroldegian Euskal Herriko Hegats txapelketa jokatu zen, eta eskuz binakako pilota txapelketak pilotazale ugari bildu zituen.

BURRUNDARAREN BEROTASUNA

A zer nolako beroa pasatu zuten danborradako txikitxoek larunbatean! Euren uniformeetan sartuta, Jeneralengandik hasi eta sukaldarienganaino, izerdi patsetan zeuden guztiak. Baina beroak ez du ilusioa urtzen, eta danbor hotsak Arrasateko azken bazterretan entzun ziren. Berrehun ume inguru desfilatzen eta ikusleen artean harrotasunez betetako gurasoak. Horixe da haurren danborrada!



LARUNBATA 20



BAT, BI, HIRU, AURRERA!

Asteko egunik beroenean 55 bat lagun aritu ziren Musakolan egindako aerobic erakustaldian.

Eguerdiko 12:00etatik aurrera izan ziren Yolanda Moreno eta Arantzazu Zubia hantxe bildutako areobiczaleak

zuzentzen. Berotze ariketak, salsa-aerobic eta zoru gaineko ariketak egin zituzten etengabean.

LAU BIKOTE TXAPELDUN

San Joanetako eskuz binakako txapelketan zortzi bikote aritu ziren txapela lortu nahian. Benjaminetan Iriak eta Ormaetxeak 22 eta 17 menderatu zituzten Arregi eta Torres. Alebinetan Zuloaga-Guridi 22, Jimenez II-Lankutza 6. Haurretan Zuazua eta Salegi aritu ziren Lezamitz eta Agirrerren aurka, eta 22 eta 16 egin zuten. Azken norgehiagoka kadeteek jokatu zuten. Uribarrenek eta Urkiak 22 eta 12 irabazi zuten Zuazua eta Jimenez I.aren aurka.



UGARTE

Industria
hornidurak

Arrasate pasealekua
Tel.: 943-79 83 96 / 943-79 23 00
Faxa: 943-793412



ERRASTI KRISTALDEGIA

**Plastiko eta burdinazko hodiak
beirina eta kristalak
osagaiak**

Olarte kalea, 47 beheka Tel.: 943 79 22 55 / 943 79 14 25

Lore

Lurrindegia

Olarte kalea, 10 • ARRASATE
Tel.: 943 79 52 50

HOR DAGO BOROBILA



Roman Unibertsitateko ikasleek mus partida ederrak jokatu zituzten Jokin Zaitegi plazan. Muslari mondragoetarrak lehenengo hiru tokietan sailkatu ziren. Tere Ibabe eta Mertxe Ambroy izan ziren Emakumeen II. Mus Txapelketako irabazleak. Mondragoetarrak zortzi errege eta zortzi batekoetara jokatu zuten beste 16 bikoterekin. Arrasatearrekin batera

Mendaro, Oñati eta Bergarako muslariak ere aritu ziren. Azkenean, ordea, Roman Lopezen ikasleak nagusitu ziren. Yolanda Azpiazu eta Rosi Azpiazu izan ziren azpitzapeldunak. Hirugarren tokian Gema Zabala eta Maribi Inda gelditu ziren. Bero ikaragarria egin zuen arren, muslariak gustura aritu ziren euren abilezia erakusten.

ANE LOPEZ DE BERGARA FIN ARITU ZEN

Igerilariak gustura aritu ziren uretan, kanpoan sekulako beroa egiten zuen eta. Igerilari mondragoetarrek emaitza onak lortu zituzten. Ane Lopez de Bergara ere fin aritu zen eta lehen tokian sailkatu zen ur gaineko 200 m. eta bigarren 400 m. eskafandran. Saria Jon Larrañagak ezarri zien.



LASAGABASTER-en

AUKERARIK ONENA




DOCKERS®
pants by
Levi Strauss & Co.

Zerkaosteta, 1 eta 2 • ARRASATE • Tel.: 943 79 27 27 / 943 79 13 55



GORA DANTZARIAK!

Dantzari gazteek entseietan ikasitakoak erakutsi zituzten igandean Arrasaten. Eta ondo erakutsi gainera, ikuskizuna benetan polita izan baitzen. Goizean goizetik, eskualdeko herrietako dantzariak eta Zarautz, Iruñea, Galdakao eta Gasteizko taldeek Euskal Herriko dantzen erakustaldia egin zuten. Guztira hirurehun inguru haurrek hartu zuten parte.



KANPOKO MARGO LEHIAKETA

Arrasateko txokoak koloreetan hartu eta zapi zurien gainean utzi zituzten igandean Arrasatera etorritako margolariak. Leioatik etorritako Piedad Santa Mariak eraman zuen lehenengo saria, baina Arrasaten ere badugu artistarik. Eluska Zabalok, 16 urte besterik ez izan arren, helduen mailan lehiatu, eta bigarren saria eskuratu zuen. Gaztetxoenen mailan Mikel Kataniak lortu zuen saria.



HIES EKIMENA

Astelehen, astearte
eta ostiraletan
5etatik 8etara.

Tel.: 943 79 26 99

JAI ZALE TABERNA

- Bokatak
- Infusio naturalak eta...
- Pintxoak
- MARTXA TOPATUKO DUZU!

Olarte, 37 • Tel.: 943 79 67 92 • ARRASATE

IGANDEA
21

GOTIBEHERAK ETA DANTZAK

Hogeita hiru goitibeherak egin zuten jaitsiera Udala auzotik behera. Aurtengoan ere, ikusmin handia piztu zuen San Joanetako III. Goitibehera lehiaketak. Bitartean, herriko kaleetan, 300 haur baino gehiago aritu ziren dantzari, Haur Dantzarien Eguna ospatzeko. Jaietarako prestatzen joateko ez zen ekitaldi makala izan.

UDALATIK JAITSI ETA GALDAKAORA

Aritz Billota eta Asier Auedo izan ziren azkarrenak San Joan Gotibeheren III. jaitsieran. 23 goitibehera bildu ziren Udala auzoan joan den igandean. Hiru bikote mondragoetar ere aritu ziren. Orijinaltasunaren saria Flores eta Ormazabal



hernaniarrek eskuratu zuten. AEDk antolatzen duen jaitsiera txapelketan, zoritxarraren saria ere izaten da. Aurten Asier Isasi eta Aitor Billotak eskuratu zuten. Bikotea mojetako bihurgunean ez, baina hurrengoan atera ziren bidetik. Hala ere, ondo babestuta zeudenez, sustoa baino ez zen izan.

“Udalarako bidea oso egokia da”

— Espero zenuten lehenak geratzea?
— Egia esan, ez. Lasterketa hasi baino lehen, jaitsiera bat egin dugu eta errodamendu bat apurtu da. Horregatik, ez genuen uste irabaziko genuenik.



— Goitibehera zuek egindakoa da?
— Asier soldatzailea denez, guk egin dugu. Dirutan baino denboraren aldetik da neketsua. Goitibehera bat egiteko ordu asko sartu behar dira.
— Gaurko ibilbide hau nolakoa iruditu zaizue?
— Oso polita eta egokia. Azkenengo bihurgunera arte ez dago zertan frenatu. Beraz, goitibehera oso arin joaten da.

Haritz Billota eta Asier Auedo

UDA KO
Ikastaro
Intentsiboak

98

OINARRIZKO OFIMATIKA
(Multimedia Sistematan ematen dira)

PROGRAMAZIOERAKO
INFORMATIKA

INTERNET

DISEINUA ETA
KOMUNIKAZIO GRAFIKOA

KONTABILITATEA

ZERGA GESTIOA PYMEetan

GIZA BALIABIDEEN
ADMINISTRAZIOA

MEKANOGRAFIA
ORDENAGAILUZ

MICROSOFT PROJECT

FOTOKONPOSIZIOA

KOMUNIKAZIOA ETA SARE
LOKALAK

INFORMATIKA EKIPOEN
KONPONKETA ETA ERAKETA

INGENIERITZA TEKNIKOA

LAGUNTZAKO KLASEAK

abuztuan ere prestatzen da

Jai zoriontsuak!

AKADEMIA

BASTIDA

INEM-ek HOMOLOGATUTAKO IKASTETXEA

Araba Etorb., 3 - 1º Arrasate
Tel.: 943 79 35 33*
943 79 32 16
Fax: 943 79 06 28
e-mail: bastida@tsai.es



AZKENEAN BAI

Nagusien danberrada egingo ote zen, azkenean bakarrik argitu zen. Azkenean urteroko ibilbidea egiten ikusi genituen San Joan bezperan. Beste urte batzuetan baino jende gutxiago zegoen, hala ere, 80 bat lagun inguru, baina ez zen zaldi gaineko banderadun lirainik falta izan. Besteak mundialak ikusten ote?

GAURIK EDERRENA

Aurtengo ekainaren 23a ere berezia izan zen: primerako eguraldia, giro aparta eta festarako gogoia. Egun batzuetan aidean zirudien danberrada ere egin zen. Zer gehiago eskatu? Alkatearen dantzaldia, akaso.


KATEA EZ DA ETEN

Puntu-puntuan, arratsaldeko 15:00etan, hasi ziren Lore Gazteak elkarteko txistulariak diana jotzen. Eguzkiak gogotik jotzen zuen, baina txistulariek aurrera. Pozgarria da ikustea behialako txistulari bandak baduela jarraipenik.

ASTEARTEA
23

KONTUZ DRAGOIAREKIN!

Azken boladan, Arrasateko dragoia gaizto Samar dabil. Iaz, ezusteko txiki bat eman zigun bere buruak sua hartu zuelako. Aurten ere, beste bat, batez ere, udaltzainburuarentzat. Sua pizteko arazoak zeudela eta, dragoiarengana gerturatu zen *Porru*, gasolina bota eta besoa erre zuen. Anbulantzia eraman zuten larrialdietara. Eskerrak ez zela larria izan.




**AZKARATE MORRAS
PODOLOGIA
KLINIKA**
ORDUA ALDEZ AURRETIK
Uribarri etorbidea, 5 behea
ARRASATE • Tel.: 943 79 53 63

TTUKUN

Fotokopiak
Liburu josteak
Fotokopiak koloretan
Planoen kopia
Offset-a

Ferrerias, 23 • ARRASATE
Tel.: 943 79 46 62

beatriz

*oinetakoak
eta poltsak*

Erdiko kale, 11
Tel.: 943 79 14 33
ARRASATE

•ARTEA•

Eskulanak eta lientzoak
ENMARKAZIOAK

Laminak, Izpiluak,
Margoak

Ferrerias, 11 Tel.: 943 - 77 10 95
ARRASATE



EZETZ HARRAPAU!

Herriko plaza jolastoki ezin hobe bilakatu zen arratsaldean. Auskalo taldeko hankapaluak agertu zirenean, gaztetxoek bapo aprobetxatu zuten konkorduna eta, zirikatzeke. Makina bat lasterraldi egin zuten.



Txikienek izan zuten gozokiak-eta jasozeko aukera jaien hasiera iragartzen zuten txapliegoak jaurti eta gero. Herriko plazan

batzuk, Iturriotz kalean besteak..., azkarrenek poltsikoak betetzeko adina litxar izan zuten.

ERREMENTARI DANTZA

Urtero bezala, jendetza handia bildu zen Errementari Dantza ikustera. Jendearen ikusminik handiena, ordea, Jose Mari Loiti alkateak suaren inguruan dantzatuko ote zuen zen, baina berak behin baino gehiagotan iragarri bezala, ez zuen dantzarik egin. Txistulari batek hartu zuen alkatearen lekua.



“Hurrek aipamena merezi dute”

— Udal gobernuan zaudenetik antolatzen dituzuen lehen jaiak dira hauek. Orain arte egin diren jaiekin jarraitu ala aire berria eman nahi izan diezue?

— Aire berririk ez. Urteroko jai berdinak egingen saiatu gara.

— Buruhauste handiak eman dizkizue antolakuntzak?

— Ez. Lana bada, ekitaldiak antolatzen dituzten talde guztiekin egon beharra dagoelako, baina alde horretatik ere, polita izan da. Benetan konturatzen zara taldeek lan izugarria egingen dutela.

— Ekitaldi bat hautzekotan, zein?

— Aurten aipatzekoa da haurren danborradak egindako ahalegina. Larunbatean egin zuen beroarekin bertan behera geratuko zela uste izan genuen. Hurrek, ordea, bi orduko ibilbidea egin zuten. Meritu handia izan zuten.



Itsaso Garai
Kultura zinegotzia



ERRALDOIAK PASIERAN

Udaletzeko eskaileretan egoten aspertuta, kalera atera ziren erraldoiak eta kilikiak. Sasoian daudela erakutsi zuten, bai

batzuk eta bai besteak. Kilikiak lasterketa franko egin behar izan zuten gaztetxo zirikatzaileak harrapatu ahal izateko.



SAN JOAN ZORTZIKOA

Meza nagusiaren ondoren, udaletzeko arkupeetara atera zen prozesioan San Joanen irudia. Han ohorezko zortzikoa eskaini zion dantzari bikote batek. Datorren urtera arte.



MUSIKA MONTERRONEN

Jende ugari eta dotore jantzita bildu zen Monterronera, Arrasate Musikalen bandaren emanaldia entzutera. Eguzkiak gogor jotzen zuen. Horregatik, jarlekurik preziatuenak gerizpekoak izan ziren. Denak pozik joan ziren: musikariak eta entzuleak.

SAN JOAN EGUNA

Jende ugari ibili zen goizean, askok gaupasa eginda, baita eguerdiko ekitaldietan ere. Arratsaldetik aurrera, berriz, haizea aldatzearekin batera, herriko kaleak lasaitu egin ziren.

ASTEAZKENA
24

M Altzariak
Diseinua
Apainketa
ARENAZA

Bizkai, 1 • ARETXABALETA
Tel.: 943 79 08 07

IRATI TABERNA

Ferrerias kalea • Tel.: 943 79 56 11
ARRASATE

BASABE JATETXEA

Menu eta afariak
Boda eta banketeak
Tel.: 943 79 91 84
ARETXABALETA



500 DRAGOI TXULETA

Santa Barbarako parkera abiatu ziren dragoiaren bila eta sekulakoa aurkitu omen zuten! 500 lagunentzako afaria prestatu ahal izan zuten harrapatutako dragoiarekin.

AEDk antolatutako herri afarian giro polita sortu zen herriko plazan. Txuleten ostean, dragoijaleek *Bexamela* izan zuten posterako, Maixa eta Ixiarren dantzaldian.



EEEPA!

Entzierroaren ostean mundu guztia behin-behineko zezen plazara.

Lau bigantxa atera zituzten. Bartolo izenekoa atera zenean, jende gutxi irten zen plazara, zer gerta ere. Argazkikoa, berriz, gazteagoa zen eta orduan bai, jendea ausartu zen.

ARKULARIAK PLAZAN

Gillen Tellen antzera aritu ziren Legazpiko arkulariak San Joan egunean Herriko Plazan. Nor baino nor, ea helburuan nork asmatu gehien, hantxe aritu ziren afalordura arte. Hala ere, ez ziren ausartu dragoia ehizatzen!



“Sasoiko nago baina ez parrandan ibiltzeko”

— Zenbat urte dituzu?

— Irailean 98 urte beteko ditut.

— Zer sentitzen da herriko zaharrena zarela jakinda?

— Zaharrena eta txikiena... baina zer egingo diogu, bada? Bizimodua horrelakoa da! Osasunez ondo nago; oraindik ikusi eta entzun ondo egiten dut eta zerbait egiteko gai naiz; beraz, ezin kexatu.

— Izan zara kalean San Joanetan?

— Sasoiko nago, baina ez parrandan ibiltzeko. Mezatara eraman gintuzten, baina bestela ez naiz kalean ibili. Jaiak gazteagoentzat dira.

— Noiz etorri zinen Mondragoera?

— Berrogei bat urte dira Castuera de la Sereñatik (Badajoz)etorri nintzela; itzultzea gustatuko litzaideke, baina dagoneko ez zait inor gelditzen han. Hala ere, hemen maite nauen jendea daukat.



Francisca Sanchez

OSTEGUNA 25

HAURREN EGUNA

Euriak kaleak busti zituen lehen orduetan, baina umeek handikiro ospatu zuten beren eguna. Mexikoko mariatxiak ere gure artean izan ziren. Andele!



HAURRAK ERE ZEZENETARA

Datozen urteetarako ere zezenezaleak ziurtatuta daude Mondragoen. Ikusi bestela, zenbat haur animatu ziren bigantxekin jolas egitera. Harrobia badago, beraz.



EGUZKIL LARU ETORRI ZEN

Eguzki Laru etorri zen ATBren platora. Eguerdian agertu zen, umez inguratutik. Nahiz eta lanbroa ziharduen, Eguzkia Laruk kolore apur bat eman zion haurren egunari. Egun osoan zehar aritu zen batetik bestera. Azkenean, neska-mutikoen penaz, datorren urtera arte agurtu zen.



A ZE IKARA!

San Joanetako bigarren entzierroan zezenen ererikoak izan ziren nagusi. Euria egin zuela eta, lurra bustita zegoen eta ibilbideko bihurguneetan bigantxak erori, bati baino gehiagori susto edarra emanez. Hala ere, ez zen ezer larririk gertatu eta plazaraino denak batera iritsi ziren.

ARGAZKI DIGITALAK

Ale honetako argazki asko, 25eko guztiak eta inkestakoak esate baterako, argazki makina digital batekin atera ditugu. Elkoro Millar-ek utzitako Sony Mavica batekin. Sistema honekin ez dago ez errebelatzerik ezta eskaneatu beharrik ere. Emaitzak begi bistakoak dira.



**OSORIK
PUB**

Ignazio Zuluaga, 4
ARRASATE

● **Txitxinpe** ●
Berezitasunak:
Kafea, ardoa, urdaitegia,
fruitu lehorrak

Arrasate Pasealekua, 33
ARRASATE • Tel.: 943 - 79 67 76

 **MARKO-JARTZEAK
ALDEDI**

Biteri, 8 • ARRASATE
Tel.: 943 79 13 05 • Faxa: 943 79 13 84



ZEZENAK GIROTZEN

Dultzaineroak goizean goiz jaiki ziren ekainaren 25ean, aurreko eguneko aje arrastorik gabe. Ongi girotu zuten zezen plaza, eta hantxe elkartu zen jendeak gogoz jarraitu zituen dultzaineroen doinuak. Zer izango litzateke zezenak ikustea musika-rik gabe?

“Atabaleroa da udal bandatik gelditzen den bakarra”

— Zelan hasi dituzue jaiak?

— San Joan zortzikoa jotzen dugu herriko kaleetan zehar. Egiten dugun kalejirarik luzeena da: irten Portaloitik eta Sebero, Arbolapeta, San Juan, Maala, eta Iturriotz pasatzen ditugu, herriko plazan bukatzeko.

— Zergatik joaten zarete San Juan etxemultzora?


— Udal txistulari taldeko atabaleroak eutsi dio ohitura horri. Beti egon da ohitura hara joateko.

— Udal txistulariak zarete?

— Ez. Tristeia bada ere, Arrasatek ez du udal txistulari talderik. Gu Lore Gazteak taldeko txistulariak gara. Atabaleroa da udal bandatik gelditzen den bakarra.

— Zenbat lagun zarete?

— Orain arte ez da ia txistularirik egon. Banda itxura gorde dugu bakarrik: lehen txistularia, bigarrena, silbota eta atabala. Orain jende berria hasi da taldean eta aurren 6-8 lagun irten gara.



Iñaki Barrena
Txistularia

**ARRASATE
HOTELA**

Biteri, 1 Tel.: 943 79 14 16
ARRASATE

TABIRA

Dietista • masajista
psikologoa

Munar, 8 • ARRASATE
Tel.: 943 79 73 54



IPUIN LANTEGIA

Titulu eskuragarriak

- Nire Lehenengo Jaunartzea
- Nire Abentura Zirkoan
- Egun Bat Errege Magoekin
- Aladino Eta Biok
- Nire Abentura Olinpikoa
- Egun Bat Zooan
- Nire Bidaia Denboran Zehar
- Pocahontas
- Umetxoaren Ipuina
- Bugs Bunny Basoaren Salbatzaile
- Nire Urtebetetzea Azokan
- Lehoi Erregea
- Maitagarrien Herrialdea
- Eskiari Buruzko Nire Liburua

- Ikasi eta ondo pasatzeko oparirik onena.
- Haurrak dira protagonista beren lagunekin batera.
- Euskaraz, gaztelaniaz, ingelesez, frantsesez, etab.

Etxera eramango dizugu!

Leintzibar, 2 • ARRASATE
Tel: 943 79 47 54
E-mail.: melices@arrakis.es

• ELEKTROLOGIA
ZENTRUA

• BEHIN BETIKO
DEPILAZIOA

Aurpegi eta gorputzerako tratamendua • Doaneko kontsulta

Maalako Errabala, 17, 1.A • ARRASATE • Tel: 943 79 51 25

Zelan joan dira San Joanak?



Miren Aldekoa
(13 urte)
Ikaslea

Ondo. Jende gutxiago dagoela igarri da, baina niri dena gustatu zait.



Iñaki Okina
(42 urte)
Pentsioduna

Normal. Dena joan da ondo. Eguraldi ona egin du eta ez dut somatu ezer faltan.



Jose Ramon Uribarren
(72 urte)
Erretiratua

Gaizki ez, badirudi jendea ibili dela lehenengo eguntan. Jende askok San Joan egunetik aurrera ihes egiten du.



Esteban Muruamendiaraz
(52 urte)
Teknikaria

Eskoriatzan egiten dut lana eta ez dut jaietan parterik hartu. Beraz, ezin dut iritzirik eman.



Aritz Mauri
(9 urte)
Ikaslea

Ondo. Gehien gustatu zaidana *Altzairuzko Arranoa* izeneko jolasa izan da, barraketan.



Adela Gardoki
(39 urte)
Erizaina

Neskatila txikiarekin nabil. Jendeak esaten du gazteen-tzako ekitaldiak falta izan direla, baina ni ez naiz konturatu.



Arrate Villamor
(35 urte)
Txurro saltzailea

Oso tristeak. Asteburuan tokatu ez direnez, kanpotik ez da jenderik etorri eta nahiko tristeak egon dira.



Maria Pilar Agirre
(72 urte)
Erretiratua

Salbean izan nintzen, baina gutxi irten naiz. Nahiko ondo bestela.

ORTO + LAGUN

O R T O P E D I A

Jaixak ondoegi pasa badituzu, orain baduzu nora etorri. Hementxe gaituzu laguntzeko prest.

Kontzeziño, 2 • ARRASATE • Tel.: 943 79 89 34

GORKA

ILEAPAINDEGIA

SOLARIUMA

Ferrerias, 35 ARRASATE
Tel.: 943 77 13 78



Bonaventure • Diesel
Pepe • Levis

Otalora, z/g Behea ARRASATE
Tel.: 943 79 11 72

astea bi hitzetan

■ **Epaile euskaldunik ez Zubizarretarentzat**

96ko Gudari egunean Ertzaintzarekin izandako istiluen ondorioz, Xabier Zubizarretak epaiketa izan zuen San Joan egunean. Epaileak euskaraz ez zekiela eta, Zubizarretak euskalduna eskatu zuen, baina epaileak epaiketa itzultzailearekin egingo zela erabaki zuen. Alkate ohiak alde egin zuen auzitegitik eta epaiketa bera barik egin zen.

■ **Presoen aldeko ekitaldiak**
Senideak elkarrekin antola-

tuta, hainbat ekitaldi egin ziren joan den ostiralean euskal presoen Euskal Herri-ratzea eskatzeko. Ekitaldientan, LAB, EHNE, ESK-CUIS, STEE-EILAS, Ezker Sindikala, HIRU eta CNTko sindikalistek ere hartu zuten parte.

■ **Ertzaintzak zuloa aurkitu du Arrasaten**

Ertzaintzak ETarena izan daitekeen zulo bat aurkitu zuen asteartean Zaldispe kaleko inguruetan. Erdi lurperatutako edukiontzi batean pistola bat, hainbat kar-

gadore, 9 mm.ko zazpiehun kartutxo baino gehiago eta ETak egiten dituen bi granada aurkitu ziren. Arma-mentua oso hondatuta zegoen.

■ **83 urte Arkauzi**

Auzitegi Nazionalak 83 urteko espetxe zigorra ezarri dio Josu Arkauz arrasatearrari. Epaia arabera, 1991n Arkauzek zazpi granada eman zizkion ETako talde bati Mungiako kuartela erasotzeko. Atentatu hartan lau guardia zibil eta ertzain bat larri zauritu zituzten.



ANTON JAIME TAKOLON

Anton Jaime Gipuz-koako Garraio diputatuak Takoloko lanak atzeratu egin direla esan zuen, baina uztailaren amaiera aldera bukatuko direla. Horrez gain, azaldu zuen Arrasateko Udalak Olandixon egin nahi duen tunela ez dela aldundiaren plangintzan sartzen.



“Javier Clementek jakinarazi zuen lehenengoz Arrasateko denda batean entzun zuela (Andoni) Zubizarretari buruz. Artean utzia zuen futbola eta Adidasen ordezkari gisa lan egiten zuen Euskal Herrian. Clementek ‘La ultima parada’ Espainiako selekzioko atezainari buruzko liburuaren aurkezpenean eman zuen anekdota honen berri. ‘Harrezkero haserretu eta barre ere egin dugu, baina beti zintzotasunaren barruan’, esan zuen”.

DV, 1998ko ekainaren 23an

Pavimentos AGR
ARROZTEGIA

Mota guztietako zoruak • Lijatu eta barnizatuak • Erradapiak • Leihoak • Ateak
Eskailerak • Armairu enpotratuak eta abar
MATERIALEN SALMENTA

Erakusketa eta biltegia:
Kale Txiki, 3 - behea • ARRASATE
Tel.: 943 77 11 20 • Faxa: 943 77 11 20

BITTORI
ERRETEGIA

Eguneko menua • Kartako menua
Especialitateak: legatz kokotxak eta txuletak
Araba Etorbidea, 3 ARRASATE Tel.: 943 79 55 82

Obstetrizia eta Ginekologia kontsulta
Serrano Doktorea

HAURDUNALDIA AMNIOZENTESIA ANTISORKUNTZA	MENOPAUSIA BASEKTOMIA BULAR PATOLOGIA
--	---

SAN MARTIN OSASUNDEGIA
Ramón M. Lili, 2 • BERGARA • Tel. 943 76 59 39 / 943 76 59 72 • Fax: 943 76 25 72

Zuri Garbiketak

- Garbitasun orokorrak eta mantenimendua: etxebizitzak, atariak, dendak, bulegoak, kristalak, etab.
- Edozein zoru motari dizdira ateratzea.

Santana auzoa, 4 etxabea Tfnoa: 943 71 48 45 ESKORLATZA

ETXEBIZITZAK

3. Errentan emateko

• Zarautzen etxebizitza alokagai. San Joanetarako edo uztaileako. Tel.: 943 83 12 53.

• Etxe bat alokagai Donostian, uda parterako. Tel.: 943 79 14 99 edo 943 21 53 98.

• Torreviejan apartamentua alokagai. Hondartzatik 100 m.ra dago. Egon-gela-jangela eta bi logela. Tel.: 943 77 03 85.

• Bungalow bat alokagai Peñiskolan, uztailearen bigarren hamabostaldian edo irailean. Tel.: 943 77 05 88.

• Aramaioi erdigunean etxebizitza alokatzen da. Jantzia dago eta berogailua dauka. Tel.: 943 79 60 88.

• Laredon hondartza ertzean dagoen apartamendua alokatzen dut. Tel.: 943 79 52 80.

4. Errentan hartzeko

• Etxebizitza hartuko nuke alokairuan Arrasaten, Aretxabaletan edo Eskoriatzan. Tel.: 943 77 13 20. Ainhoa.

• Etxebizitza merkea, erosi edo alokatuko nuke. Arrasaten edo inguruan. Tel.: 943 79 28 30.

• Jubilatutako bikote batek etxebizitza hartuko genuke alokairuan. Tel.: 943 79 36 81. Deitu 15:00etatik 17:00etara edo 20:00etatik aurrera.

• Ikasle batzuek etxebizitza alokatu nahi dugu Arrasaten. Ezkertuko genuke telefono honetara deituz: 943 88 33 98. Jonez galdetu.

• Senar-emazteek etxebizitza alokatu nahi dute Arrasaten. Tel.: 943 79 75 34.

• Etxebizitza hartuko genuke alokairuan Arrasaten. Tel.: 945 45 01 80. Urzi. Deitu asteburuetan.

5. Etxe konpartituak

• Gela bat alokatzen da San Andresko etxebizitza batean. Uztailearen erdialdera arte. Tel.: 943 79 98 70. Txema.

• Arrasateko alde zaharrean gela bat dugu alokatzeko. Berri gehiagorako, deitu gabe 943 79 96 79 telefonora. Jose Luis.

• Lagun bat behar da etxebizitza osatzeko Aramaion. Tel.: 943 77 04 98. Eguerdietan.

• Gela baten bila nabil etxe konpartitu batean, Arrasaten. Tel.: 929 96

ETXEBIZITZAK

1. Saldu
2. Erosi
3. Errentan emateko
4. Errentan hartzeko
5. Etxe konpartituak
6. Bestelakoak

GARAJEAK

7. Saldu
8. Erosi
9. Errentan emateko
10. Errentan hartzeko
11. Bestelakoak

LOKALAK/ORUBEAK

12. Saldu

13. Erosi
14. Errentan emateko
15. Errentan hartzeko
16. Bestelakoak

LANA

17. Eskaintzak
18. Eskaerak
19. Bestelakoak

IRAKASKUNTZA

20. Eskaintzak
21. Eskaerak
22. Bestelakoak

MOTORRA

23. Saldu

24. Erosi
25. Bestelakoak

DENETARIK

26. Saldu
27. Erosi
28. Trukatu
29. Eman
30. Hartu
31. Galdu
32. Aurkitu
33. Bestelakoak

HARREMANAK

34. Agurrak
35. Kontaktuak
36. Deialdiak
37. Bestelakoak



943 77 05 65

ARRASATE PRESS • Otalora Lizentziatua, 31 • 20.500 (ARRASATE)

Sail honetan agertzen diren iragarkiak dohainekoak dira. Partikularren iragarkiak argitaratzen ditugu bakarrik. Arrasate Press ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzunkizunik. Asteazken eguerdia baino lehen deltu behar da iragarkia jartzeko.

85 87. Juanjo.

• Gela bat alokatzen da, alde zaharrean. Tel.: 943 79 87 59.

• Donostian etxea osatzeko bi neska behar dira. Tel.: 943 79 74 03.

• Arrasaten pertsona bat behar da etxebizitza alokatua osatzeko. Tel.: 943 79 93 03.

GARAJEAK

7. Saldu

• Garajea salgai Roneoko etxeetan, lehenengo solairuan. Tel.: 943 79 52 41.

9. Errentan emateko

• Garaje itxia alokagai, Roneoko etxeetan. Tel.: 943 79 19 64.

LOKALAK

14. Errentan emateko

• Eskatu pabilioian garajea alokatzen da. Tel.: 943 79 59 08.

LANA

17. Eskaintzak

• Andra euskaldunak etxeko lanak egin, eta umeak eta pertsona nagusiak zainduko litzuzke. Arratsaldean lan egingo luke. Tel.: 943 79 07 73.

• Esperientziadun klinika laguntzaileak pertsona helduak zainduko litzuzke, etxeetan edo ospitalean. Gabez ere bai. Tel.: 943 79 34 09.

• Neska prest ile apaindegian lan egiteko. Tel.: 943 79 53 57. Goizez edo gabez.

• Tabernan zerbitzari lanetan aritzeko neska prest. Tel.: 943 79 68 77. Vanessa.

• Neska arduratsua prest umeak zaintzeko. Tel.: 943 71 53 74. Goizetan edo 20:00etatik aurrera.

• Emakume esperientziaduna prest etxeko lanak egiteko eta pertsona gaixoak edo umeak zaintzeko. Tel.: 943 79 11 46.

18. Eskaerak

• Neska bat behar da ume bat zaindu eta etxeko lanak egiteko Uribe

auzoan. Tel.: 943 77 03 05.

• Jangelan lan egiteko zerbitzaria behar da. Kontratua egingo da. Tel.: 945 44 50 95.

• Uztaile eta abuzturako emakume edo neska autodunak behar dira Aramaion pertsona helduak zaintzeko. Tel.: 945 23 34 12.

• Zerbitzu arloan lan egiteko komertzial bat behar da. Tel.: 943 77 17 68.

• Emakume bat behar dut taberna garbitzeko. Tel.: 943 44 50 95.

• Publizitate saltzailea behar da Jardun elkartearen proiektu berezia bul-tzatzeko. Bidali carrikuluma ekainaren 22a baino lehen, helbide honetara: Jardun elkarte. Kartzela zaharra, Juan Irazabal kalea z/g. 20570 Bergara.

• Ile apaintzailea behar dugu asteburuetan lan egiteko. Esperientzia eskatzen da. Tel.: 943 77 09 44.

• Pizzeria batek sukaldari laguntzailea behar du asteburuetarako. Tel.: 943 79 11 25.

• Jatetxerako zerbitzaria behar da. Neska, euskalduna eta esperientziaduna. Tel.: 943 79 24 58.

• Sukaldari laguntzailea behar da jatetxerako. Tel.: 943 78 35 26.

• Emakumea behar da umea zaintzeko. Tel.: 943 77 10 62.

IRAKASKUNTZA

20. Eskaintzak

• Euskal filologiako ikasleak, udan eskola partikularrek emango litzuzke. Euskara, gaztelania... Tel.: 943 79 29 20.

• Ingeleseko eskolak emango nituzke uztailean. Tel.: 943 79 18 70.

• Neska prest uda partean eskola partikularrek emateko. Tel.: 943 79 81 67.

• Uztailean eskola trinkoak emango nituzke. Ingeles, ESO eta LOGSEN. Talde txikiak. Ingeleseko titulu ofiziala eta esperientziaduna. Tel.: 943 79 56 78.

• Irakasle ikasketetan diplomadunak eskola partikularrek emango litzuzke udan. Tel.: 943 79 35 24.

• Udan eskola partikularrek emango nituzke Aretxabaletan. Matematika, fisika eta kimika. Tel.: 943 79 51 19. Ane.

21. Eskaerak

- Ingeleseko eskolak hartuko nituzke. Tel.: 943 79 99 41. Beatriz.
- Ekonomiaki eskolak hartuko nituzke. Tel.: 943 77 05 25.
- Frantseseko eskolak hartuko nituzke. Tel.: 943 79 79 63. Deitu arratsaldez. Igor.
- Etxean eskola partikularrak hartuko nituzke, BT 2. mailako elektroteknia, matematikak, ingelesa eta gaztelania. Tel.: 943 79 34 53
- Kontabilitateko eskola partikularrak jasoko nituzke. Deitu gaueko 21:30etatik aurrera 943 79 36 83 telefonora. Idoia.

MOTORRA

23. Saldu

- Lau pertsonarentzako kanpin erremolkea salgai. Aurrerapena (avance) eta sukaldia dauzka. Egoera oso onean. Prezioa 125.000 pta. Tel.: 943 79 49 28.
- Lekuz aldatu behar dudala eta, autoa saltzeko presa dut. Ford Escort L. Tel.:

943 71 53 00.

- Peugeot 205 gorria salgai. Eguzki sapaia dauka. Tel.: 943 76 21 70/943 77 12 04. Deitu gaueko 20:00etatik aurrera.
- Ford XR-2 salgai. Berri-berria. 250.000 pta. Tel.: 943 79 80 44 Lutxi.
- Karabana tolesgarria salgai. Tel.: 943 79 52 41.
- Kawasaki Vulkan 800, 93. urtekoa eta gehitutako zerbitzuekin salgai, 600.000 ptatan (negoziagarriak). Tel.: 943 77 10 30.

DENETARIK

26. Saldu

- Sukaldean erabiltzeko etxeko tresna elektriko erabiliak salgai. Oso prezio onean. Tel.: 943 79 13 26.
- Correoseko lehiaketetarako gai zerrenda salgai. MAD akademiakoa. Tel.: 943 79 60 81.
- Lau lagunentzako lekua duen dena erremolkea salgai. Oso egoera onean eta prezio interesgarrian. Tel.: 943 71 52 24. 20:00etatik aurrera.

- Errepideko bizikleta saldu nahi dut. Tel.: 943 79 31 40.
- Maxi-cosia salgai 17.000 pta.tan (hamaka + txasixa = paseorako haur kotxea, aterkia daukan aulkia). Tel.: 943 79 41 31.
- Jamsterra salgai, 200 pta.tan. Tel.: 943 77 17 82.
- Urte bat baino ez duen errepideko bizikleta baten koadroa salgai. Ezagarrak: Tuberia Columbus SLX Pinarello JJC; urkila zuzena, kolore horia eta 60ko neurrikoa dena. Oso merkea. Tel.: 943 71 42 32. Iñigo.
- Trialeko bizikleta salgai. Bikotrial X. clas 219. Tel.: 943 79 93 03.

27. Erosi

- Ehiza txakurrak eramateko bigarren eskuko eskorga merkea erosi nuke. Tel.: 943 78 34 64. Migel Angel.
- Disko txikiak eta handiak erosten ditut. Tel.: 943 52 65 77.
- 2m.ko kaja duen erremolkea erosi nuke. Tel.: 943 73 19 60. Joseba. 21:00etatik 22:00etara.

31. Galdu

- Ekainaren 17an Zerrajeratik Iturriotz kalerainoko bidean kamisola marroia galdu nuen. Topatu baduzu, deitu 943 79 26 21 telefonora.
- Arrosa koloreko jaka galdu dut Zal-dibarretik S. F. Xabier ikastolarainoko bidean. Topatu baduzu, deitu mesedez 943 79 38 52 telefonora.

32. Aurkitu

- Perikito berde-horia aurkitu nuen San Andresen. Tel.: 943 71 46 50.
- Etxeko katu bat aurkitu dugu. Bel-tza da eta lepokoa ere badauka. Tel.: 943 79 25 07.

HARREMANAK

35. Harremanak

- Kaixo, Xabi naiz eta nahi nuke 33 urtetik beherako mutlekin harremanak izan. Asmo bera baduzu, idatzi posta kutxa honetara: 91 zenb. Oñati. 20560 Gipuzkoa. Nire aldetik, erabateko zuhertasuna.

UDA
HONETARAKO

IKASTARO
TRINKOAK
ETA ERREKUPERAZIO
IKASTAROAK

ALEMANA
INGELES
FRANTSESA

- **UDAKO IKASTAROAK**, Ingalaterran, Irlandan, Kanadan, familia batekin elkarbizitzen, 13tik 18ra bitarteko gazteentzat.
- **LAN ESPERIENTZIA**, Ingalaterran enpresatan; lanean eta familia batekin elkarbizitzen.
- **UDALEKUAK**, 12 egunekoak, Brinkolan 9tik 13 urtera arteko umeentzat
- **IKASTARO TRINKOAK ETA ERREKUPERAZIO IKASTAROAK CIMen**


HIZKUNTZAK-IDIOMAS

Olakua, 14
Te. 943 71 60 00
OÑATI

Araba Etorbidea, 4
Tel. 943 71 20 55
ARRASATE

Eta gainera gure Mediateka zabalik izango duzu, Multimedia materiala, softwarea, eta abar. DOHAINIK.

Argazkikoak 1941eko soldadugaiak dira. "La quinta del biberón" izenez dira eza-

gunak herrian, eurak izan baitziren gerrara joan ziren gazteenak. Hemezortzi urte besterik ez zuten gerrarako deitu zietenean.

Argazkia gerratik bueltan atera zuten, noski. Soldadugaiak egiten duten bazkari horietako baten aurretik.

Goiko lerroetan: Pedro Sologaiztoa *Laso*, Patxi Nafarrete, Antonio Murua, ezezaguna, Luis Aretxaga, Julio Lazpiur, Imanol Zeziaga *Divino*, Anjel Arana, Pedro Zubia *Periquin*, Agustin Etxenautia, Tomas Uranga *Kirru*, Paulino Ibabe, Inocencio Arregi, ezezaguna, ezezaguna, Jose Oar, Alejandro Beltran, Juan Unzueta, Gabriel Okina eta Bizente Garai.



Erdian: Matias Sagasta *Motegi*, Juan Guridi, Jose Mari Garai, Bizente Sagasta, Carlos Ginart, Florentino Aiausti *Sanjurgi*, Anton Garate, Tomas Lezeta, Felix Beitia *Txukurrillo*, Felipe Vitoria,

Ildefonso Urra eta Cipriano *Txaeta*.

Behean: ezezaguna, Faustino Elkoro, Luis Murguzur, Imanol Arizaga *Txanbolin*, Felipe Zuazubiskar, Jose Mar-kaide *Olia*, Bizente Ugarte

(goian) eta Jose Mari Mercader *Txantxote* (behean).


Berriemailea: Luis Aretxaga Argazkia: Alejandro Beltran

GASTON Y DANIELA
 Tapizeria • Moketak • Alfonbrak

Alfonbra eta oihalez gain, haur eta gaztetxoentzako altzari sail berria topatuko duzu!
Zatoz guregana!

Kruz Gallastegi, 3 • BERGARA • Tel: 943 - 76 07 37

Zure inbertsioak errentagarri egiteko, utz ezazu estatuko lehenengo gestore independententeak bidera zaitzan.

ABASESORES 

Ondo inbertitzea denon esku dago

Santalaitz, 6
 S. Lorentzo Industrialdea
 Tel.: 943 - 76 54 35
 20570 BERGARA

<http://www.abasesores.es>

JAPAN

Olaya's

MANDARINA DUCK



LUIS ESTEVE



GILABERT

V RONCATO VALIGERIA

Spek Denda



Iturriotz, 19 Herriko Plaza
ARRASATE

ZINEA

2an **Airbag**
9an **Bernie**
16an **Trainspotting**
23an **Perdita Durango**

Monterron Parkean
22:30etan. ostegunetan
Sarrerak: 400 pta
(Gazte Txartelarekin: 350 pta.)



ANTZERKIA

Markelineren
"Alo Europa"
Herriko Plazan
Uztailak 10. ostirala.
22:30etan

DANTZA

Nazioarteko Folklore Taldea
Amaia Antzokian
Uztailak 28. asteartea. 22:30etan
Sarrerak: 800 pta. (Gazte Txartelarekin: 600 pta.)

Uztaileko KULTURA EKINTZAK



ARRASATEKO UDALA

Kultura Saila ■

iKKER

SUKALDE ETA BAINU ALTZARIAK

Errealitate
bihurtzen diren
ilusioak

